

# ...eta **kitto!**

756 zkia. 2011-III-18


ASTEKARIA



## Hemen dago berriro **USARTZAKO ERROMERIA**

Urte gehiago izateak  
abantailak ditu *Zorioneka*  
*Urteak*

Zure betaurreko berriak erosterakoan,  
armazioan zure adinaren araberako  
deskontua egingo dizugu



Zentral Optika  
Ego Gain, 2  
Tfnoa. 943 701 408

\*Eskaintza  
baliagarria  
betaurreko  
osoa erositik gero:  
armazioa  
+ lenteak  
islaren  
aurkakoarekin  
promozioan  
barne.

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu\*

\* Hortz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. EZIN ZAIE beste promozioei GEHITU.



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.  
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)  
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartera  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALA:**

Jose Luis Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HARBIDE.-** Kaltzada. "Bide txingor honek, harbide batera joten dau".**HARBITZ.-** Kuartzoa. "Harbitzak ostiango harri guztiak erreixatzen ditte".**HARBURU.-** Harkaitz. "Itsas ertzeko harburuetatik, arrantzale egitten eban amuagaz".**HAREN BATEN / HORREN BATEN.-** Gauza bi antzera samarrekoak direla esateko. "Bata katu eta bestia txakur, bixak haren baten dabiz".

## ESKUTITZAK

### ANTZERKIRA GOAZ... GOIZEKO 05.00-ETAN

Teloia jaso baiño lehen, lehelengo txalua ekitaldiko ohiko jarraitzaillientzat. Martxuaren 5ian (txarteldegixak goizeko 10.00etan zabalduko ziralda iragarritza eguanian), goiz-goizetik osatu zan interesatuen taldia. Kolektibo horretakua, modu autogestionarixuan gaiñera, txanda emoten zetsen alkarri antziñatasuna aittatzen eban paper baten bittartez. Lehelengo zenbakixak illaria zabaltzen eban eta goizeko bostak hamar gutxiaguetatik (3 graduko hotz-beruarekin) eguan andra batek hartu eban. Goizeko 06.00-etarako 24. zenbakixa banatuta eguan (ordurako tenperaturiak gradu bat egiñ eban gora, 4ra heltzeko).

Ejemplo moduan, 65 urteko Mertxe Rodríguez da argazkikua, A Coruñan jaixotakua eta bere gazte sasoiari Amancio Ortega enpresarixoa artifaxmosua (Inditex-eko sortzaillia, hau da, Zara eta beste marka komertzialetakua) ezagutu ebana azken hau "Gala" dendako alkondara agente saltzaillia zanian.

Antzerkixa hainbeste gustatzen jakon galdetuta, baietz erantzuten dau, beterania dala goizaldeko illaretan eta, aukeratzeko obra bi emongo balekixoa, "La lluvia amarilla" eta "Sin embargo, te quiero" lanak aukeratu leukezela. Ez dira ediziño berekuak, eta horrek erakusten dau jendiak Jardunaldixeri detsen estimua. Goiz-goizetik eta 3-4 gradurekin bakarrik! Jardunaldixak ezin izan dira hobeto hasi.

Antzerkixa hainbeste gustatzen jakon galdetuta, baietz erantzuten dau, beterania dala goizaldeko illaretan eta, aukeratzeko obra bi emongo balekixoa, "La lluvia amarilla" eta "Sin embargo, te quiero" lanak aukeratu leukezela. Ez dira ediziño berekuak, eta horrek erakusten dau jendiak Jardunaldixeri detsen estimua. Goiz-goizetik eta 3-4 gradurekin bakarrik! Jardunaldixak ezin izan dira hobeto hasi.

**JARDUNALDIXETAKO  
ILLARETAKO  
GOIZTIARRAK**

*asteko***HEMEROTEKA***esaldiak*

"Hazkuntzan oinarritutako ekonomian hazten jarraitze-ko, laster dena egunero bota beharko dugu zaborretara eta berriz erosi. Zaharkitze programatua bizi dugu: inprimagailuek txip bat dute, hainbat orri inprimatzen dituztenean, huts egin dezaten; informatikan ere batera-egintzatsuna dago, dazun softwareak ez du gailu berrirako balio, edo alderantziz. Eta badago zaharkitze psikologikoa ere, jantzi edo telefonoren bat bota egin behar dugula sentitzen dugunean, ez delako azken modakoa"

(Cosima Dannoritzer, dokumentalgilea)

"Europar lan ordu gehien espainiarrek egiten dute, baina produktibitate eskasarekin. Espainiarren kultura lanean presente egoteari lotuta dago, lan egin ala ez, eta lanaldia hainbeste luzatzeak ez du zentzurik. Europako batez bestekoa baino 53 minutu gutxiago egiten dugu lo egunean eta hori oso kaltegarria da osasunarentzat. Ez da kasualitatea Espainia Europar lider izatea eskola porrotean, edota jaiotze-tasa baxuenak edukitzea, edota bikotean banantze kopuruetan ere lider izatea"

(Ignacio Buqueras, ekonomialaria eta enpresaburua)

EIBARKO  
UDALAGIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## ERREBAL PLATAFORMA

Billera publikorako deialdixa egin dabe Errebal Plataformakuak, herritar guztiendako. Batzarra eguaztenian, hillaren 23an egingo da, 19.00etan Portaleko areto nagusixan. Azken orduko informaziñua konsultatzeko errebal.com webgunera jo leike.

## GARBIGUNE BARRIXA

Debabarrenako Mankomunidiadiak aditzera emon dabenez, eguaztenian, hillaren 23an, 12.30xetan inaugurauko dabe Garbigune barrixa, Elgoibarko Arriaga industrialdian.

## GOI ARGI

Urteko Batzarra egingo dabe Goi Argi alkartekuak domekan, hillaren 20xan (San Jose eguna lan eguna izatian hurrengo egunera pasau dabe batzarra eta jaixa). Lehelengo deialdixa 18.00etarako egin dabe eta bigarrena ordu erdi geruagorako, 18.30xetarako. Billeraren ostian Goruntz abesbatzakuak kantauko dabe.

## WIFIAREN DATUAK

Urtarrillaren 28tik otsaillaren 28ra bittarteko WiFi publikuaren inguruko datuak emon ditte ezagutzera: 290 erabiltzaille registrau dira eta horrek egindako 2.377 sesiño zenbatu ditte.

## Gernikako akordixuaren aurkezpena

GERNIKAKO AKORDIOAREN ALDEKO EIBARKO TALDIAK DOMEKAN PRESENTAU ZITTUAN taldia bera zeñi akordixuaren ingurukuak, Portaleko aretuan egindako ekitaldixan. Beste herrixetan egindakuaren bidetik, Eibarren be "elkarbizitarako proposamen" modura ulertzen daben testuarekin bat egin nahi izan daben herritar zein taldien atxikimenduak jasotzeko biharrin jardun dabe azken hillebetiotan eta domekako ekitaldixan azaldu zittuen lortutako emaitzak eta bestelako zehaz-



Domekan etara zan argazkixa, Portaleko areto nagusixan, Gernikako Akordixuaren babeslekin. / MAIALEN BELAUSTEGI

tapenak. Siñatzailien artian hasieratik egon dira, bestiak beste, Eusko Alkartasuna, Alternatiba, Ezker Abertzalia, Gazte Abertzaliak, Gazte Independentistak, Amnistiaren Aldeko

Mugimendua, EHNE, Etxerat, Herria 2000 Eliza, LAB eta Ikasle Abertzaliak, baiña Eibarren bertan herritar morduak zein alkarte askok bat egin dabe testuarekin.


## Eli Gómez, Ezker batuaren hautagaixa

ATZO EMON EBAN EZAGUTZERA EZKER BATUAK EIBARKO BERE HAUTAGAIXEN ZERRENDIA prentsaren aurrian. Alkategaixa oin momentuan ziñegotzixa dan Elixabete Gomez Laconcha izango da atzera be, eta hurrenguk, orden honeri jarraitua, Luis Santos (independentia), Maribel Postigo, Jose Ignacio Irisarri



Elixabete Gómez azken hauteskundeetan ere zerrendaburu izan zen. Orain sartu dituzten independenteen artean, Sardo Irisarri aktorea dago, 4. postuan.

"Sardo" (independentia), Eneka Delgado, Luis Etxeberria, Idoia Alvarez, Juan Sanchez Vallejo, Maria Luisa Lekunberri eta Miguel Angel Santiago (independentia) izango dira. Eibartarron "bizitza kalidadia hobetzeko helburuari" jarraituta, bere programaren ardatz nagusixak "enpleguaren sorreria, auzuen regeneraziñua, bidegorrixak eratzia eta gaztiak zein umien premiñak asebetetzia" dirala azaldu eben presentaziñuan.




## PEDRO MARI GARITAONANDIA SARASUA<sup>ren</sup>

1. urteurrena (2010-III-16)

Zu joan zara, baina ZUREGANAKO GURE MAITASUNA ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusia eta bizipoza.

ZURE SEME-ALABAK






## Martxuaren 21ian arrazismuari stop

### ASTELEHENIAN, HILLAREN 21-IAN ARRAZAKERIXAREN KONTRAKO NAZIÑOARTEKO EGUNAREN HARIRA

hainbat ekimen dagoz deittuta, tartian Stop Arrazismua Flashmob dalakua (deialdi bati erantzunda toki eta ordu konkretuan, normalian zeozer aldarrikatzeko asmuarekin, jendia batzeko jardueriari esaten joko ho-

lan): bost miñutuko iraupena izango daben geldialdixa EAEko hiru hiriburuetarako deittuta eguan hasieran, baiña honezkerero Eibarrek eta beste hainbatek be egin dabe bat ekimena- rekin. Hitzordua astelehenian 19.00etarako ipiñita dago eta gurian Txaltxa Zelaiko harmail- lak, musika kiosko parekuak aukeratu dittue jendia batzeko.



## PSE-EEko hiru ziñegotzi Batzar Nagusixetara

ZAPATUAN PRESENTAU ZITTUEN GIPUZKOAKO PSE-EE ALDERDIXAK BATZAR NAGUSIXETARAKO prepa- rau daben zerrendako kidiak eta tartian Eibarko hiru ziñego- tzi dagoz: zerrendaren lehe- lengo postuan Eneko Andueza Hirigintzako ziñegotzixa dago, laugarren postuan Nerea Az- piazu doia eta Arcadio Benítez

Zerbitzu arloko ziñegotzixa, barriz, seigarrenian. Oin mo- mentuan Ana Rodríguez Kirol ziñegotzixa dago Batzar Na- gusietan, baiña legegintzaldi- xa amaitziarekin batera lagako detsa karguari. Bidasoa-Oiar- tzunetik Miguel Buen izango da zerrendaburua, Donostial- deatik Rafaela Romero eta Oriatik Julio Astudillo.

## anzorik anzo



### Udaberri jaixa Abontzako Itturrixakin

**Abontzako Itturrixa Elkartiak, azken urtiotako martxari ja- rraituta, auzoko eta gaiñontzeko eibartar guztieri dei egi- tten detse** domekan, 12.00xetatik aurrera udaberrixari ongi eto- rrixa emoteko antolatu daben jaixan parte hartzera animau eta bertara agertzeko. 14.00xak arte ospatuko dan jaixan, bestiak beste, umiendako joku eta jolasak izango dira protagonista na- gusixenetakuak.

Antolatzailliak kontau deskuenez, *“gure artista txikixen eskutik margo eder eta koloretsuak izango dittugu, ikuskizun paregabia. Eta globuak gure gaztetxuen eskuetan lotuta, kolore biziz bete- ko dabe inguru guztia. Ondoren, hegan urtetzen dabenak bidai eder bateri ekingo detse, Eibarko zerua irudi zoragarrixa bihur- tuta”*. Horren harira, globuak puzteko orduan txapelduna zein dan ikusiko da 3. ediziñua betetik daben lehiaketan. Jaixa musi- karekin alaituta egongo da eta pintxo beruak eta edari freskuak ez dira faltako.

## eibar kaleka

### San Juan kalia

Aurreko astian herriko patroï bateri eskindutako kalia aittatu genduan hamen atalian eta oinguan beste patroïari eskindutakua dakarkigu. San Juan kalia Toribio Etxebarria kaliarekin paralelo, atzeko partetik doiana da, ambulatoxian hasi eta udaletxerañño bittartekua.

Pegora kopurua: 10

Erroladatutakoak: 306



asteko

112

datua

jarduera antolatuta zittuen Ikasten alkartekuak iaz. Hitzaldixetan batz beste 55 eta 60 lagun bittartian hartzen dabe parte, sendabelarren foroan 25, Mendaroko Ospitalian 26 gaixori arreta eskindu detse eta mendi-ibillaldixetan 30 bat lagun batu ohi dira.

## Sergio San Jose da Aralar alderdixaren alkategaixa

**GAZTETASUNA ETA ESPERIENTZIA BATZKO AHALEGIÑARI JARRAITTUTA, DATOZEN HAUTESKUNDIETARAKO** Aralarrek presentauko daben zerrendaren buruan Sergio San Jose izango dala emon eben ezagutzera aurreko barixakuan. Alkategaixak 25 urte dauzka, Zientzia Politikueta lizentziaduna da eta, horrez gain, parte-hartze kontuetan aditua be bada. Aurreko hauteskundietan buruan izan zan M<sup>a</sup> Asun Gartzia, barriz, bigarren postuan aurkeztuko da eta, aurkezpen ekitaldixan bertan argitu ebenez, "M<sup>a</sup> Asunek hasittako biharrari jarraitzia" da San Joseren asmua. Gartzia egindako baloraziñuan "Aralarrek herritarrekin batera politika gardentasunez eta alkarlanian egittia posible dala" erakutsi dabela azpimarratu eban eta Errebal, Erisono eta esku artian dittuen proiektuetan tinko biharrari jarraituko dabela azaldu eban.

Aralar alderdixa definitzeko "ezkerrekuak" eta "abertzaliak" erabili zittuen eta kanpaiña 3 ardatzen inguruan lantzeko asmua azaldu eben: "Lehenik eta behin, kulturua eta euseria kalera etara bihar dirala uste dogu, programa zihetzak landuta. Bigarrenik, herritarren intereseri lehentasuna emongo detsan gestiño publikua bermatu nahi




M<sup>a</sup> Asun Gartzia, Sergio San Jose, Rebeka Ubera eta Axel Erostarbe.

dogu. Ildo horretan, Matsarixa-Estaziño-El Casco-Errebal herri barruan mugitzeko ardatza izatia nahi dogu, bestiak beste Matsarixan autobus geltoki barrixa eta aparkaleku disuasorixua eraikitia". Horrekin batera Errebal eta Txontan berdeguniak bultzatu nahi dittuela azaldu eta alokairu sozialen aldeko jarrera agertu eben. Hirugarrenik, gaztieri eta herritarren benetako parte-hartziari lehentasuna emongo detsela esan eben. Bestiak beste, "herrittareri, ordenaziñoz kanpo dagan Guardia Zibillaren kuartelaren inguruko galdeketa egittia" biharrezkua ikusten dabe.

## Kantabriako Etxekuen batzarra

**DOMEKAN OSPATU EBEN EIBARKO KANTABRIAKO ETXEKUAK URTEKO BATZARRA**, erretratuan ikusten dittuzuenekin. Asanbladan zuzendaritza barrixak bere lehelengo urteko balanzia eta diru-kontuak azaldu zetsazen bazkidieri eta, ondoren, oin egun batzuk jokatu-tako mahai-jokuen txapelketaren irabazlieri sarixak emon zetsen. Piskolabisarekin eta "montañesa" batzuk abestuta amaittu eben ekitaldixa Jardñeta kaleko Centro Montañesekuak.



## Kale-mapa interaktibua

**ASTE BATZUREN BURUAN UDALAK WEBGUNE BARRIXA IPIÑIKO DAU MARTXAN** eta, horrekin batera etorriko diran aldaketen artian, bestiak beste, kale-mapa interaktibuak argixa ikusiko dau. Alkatetzatik ezagutzera emon dabenez, "kale-mapa horrek eskinduko daben zerbitzuetako bat enpresen direktorixua izango da. Oiñ arte, Eibar Merkataritza Gune Irekiko denda guztiak, Dendarien Elkarteko bazkide diran dendak eta Eibarko industria guztiak sartuta dagoz mapan". Halanda be, mapa barrixan aittatutako alkartietatik kanpora daguaz ennegozio, denda eta bestelako enpresa guztieri aukeria emon nahi detse, nahi izanez gero izena emon deixen eta bertan agertzeko. Horretarako Eibarko udalarekin hartuemonetan ipiñi biharko dira, [alcaldia@eibar.net](mailto:alcaldia@eibar.net) emailera idatzitta edo 943708401 telefono zenbakira deittuta, jarraixan eskatzen diran datuak emoteko: enpresaren izena, zertara dedikatzen dan, helbidia, telefonua, posta elektronikua, webgunia, faxa eta logotipua (baldin bada).

## Marmarra fanzine barrixa

**EIBARKO LAGUN TALDE BATEK MINI-FANZINE BAT SORTU ETA KALERATU** dau "Marmarra" izenarekin. Hasiara batian Matrallako irratixaren inguruan sortutako ideia izan zan eta, bestiak beste, irratixan eskintzen dittuen programen gaiñekuak ezagutzera emoteko baliabide modura erabili nahi eben. Lehelengo zenbakixa oin dala hiru bat aste kaleratu eta Karrika tabernan presentau eben eta, bestiak beste, zazpi lagun kolaboraziñuak batzen dittu, "testuak zein marrazkixak" eta, gaiñera, Matrallako irratixa atzera be martxan daguala iragarten daben irudixa be bada. Eskuratu nahi dabenak horretarako aukeria eukiko dau Karrika, Montekasino eta Depor tabernetara juanda eta bertan eskatuta. Hurrengo zenbakixetan jende barrixa gehitzen juateko asmua dake sortzaillak.




Graffittien asuntua ez da atzo goizekoa, baiña Udala hasarretu egin jaku graffitteruak baiña orma zikintzailliak geratu barik herrixan ikustiaz eta 750€ko isuna ipintzia erabagi dau hamendik aurrera; harrapatzen dittuanak adin txikikuak badira, gaiñera, gurasuak ordaindu biharko dittue isunok. Erabagixa zuzena ikusten dau jendiak?

## Zelan ikusten dozu graffittiak egittiarren isunak jartzia?



**JESUS ARTOLAZABAL**  
69 urte  
jubilaua

Igual 750€ askotxo da, baiña poltsikua ikutu arte konturatzan ez garanez... Urkizuko torrien atzeko aldeko egoeria, esaterako, lotsagarrixa da: oin dala gitxi obra haundixa egin zan eta, astietara, dana graffitiz jositta, eta zatarrak gaiñera... Isuna biharrian, garbitzen ipiñi, kontura daittezen!



**NATI MARÍN**  
54 urte  
bihargaña

Polittak izango balira, ez jatan txarto irudittuko, baiña gehixenak zikinkerixia dira. Mural polittak egitteko tokixa laga eta ganorazkuak eginda, ondo; bestela, isuna ipintzia ez dot txarto ikusten. Hailanda be, adin txikikuak badira, isuna gurasuentzat da; eragingarrixa, igual, garbittu araztia.

**CATI ROLO**  
51 urte  
etxeoandria

Mural polittak badagoz eta halakuak egittia ondo begittantzen jata, baiña bata bestiaren gaiñian egoten dira asko, iñolako forma barik eta horrek zatartu besterik ez dabe egitten. 750€ asko begittantzen jata eta uste dot pareta garbittu araztia hobe izango litzatekeela.



**ALEJANDRO GARRIDO**  
64 urte  
jubilaua

Graffiti oso polittak be badagoz eta horrek gorde bihar dirala uste dot; baina, lekuz kanpo eta, politta egin biharrian, zatartu egitten dabenak kendu biharko zirala uste dot. Isuna ez dot ikusten oso eraginkorra danik, garbittu araztia askoz be mesede gehixago egingo zeskula uste dot.



# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Etxeko foie-a  
Tomate entsalada ahuntz gaztaiarekin  
Ganba, perretxiko eta espinaka nahaskia*

*Legatza labea*

*Solomilloa Idiazabal erara  
edo Ahate konfit-a*

*Degustazio postrea  
edo Limoi sorbetea cavarekin  
edo Marrubi zuku naturala*

*Urteko ardoa, sagardoa edo beste*

Astehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

# Favela party

**I**panemako kaleak turista eta estatus erdi-altuko jendez beteta daude gehienbat. Hondartza **Rio de Janeiro**ko famatuenetarikoa da **Copacabana**koarekin batera, eta urteetan zehar Brasileko hiriburua izan zenaren postal arrunta da. Ipanemako **Garotak** ez du aurkezpenik behar eta, bertan ibiliz gero, Vinicuis de Moraesek inspirazioa nondik jaso zuen erraz ikusten da (edozein izan daiteke Helo Pinheiro).

Hondartzatik ehun bat metrotara dagoen aterpetxe batean egiten du lan **Alexek**. **Flamengo** foball taldearen zale amorratua, aterpetxearen kudeaketa bere esku dago, eta bertan ostatu hartzen dutenei tratu adeitsua eta gomendioak ematen dizkie egunak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko.

Brasilera nire lagun **Jonekin** lehen aldiz joan nintzenean 'Faveletako guerra' ari zen gertatzen Rio de Janeiron. Armada faveletan sartu zen narkoen bila eta asteetan zehar benetako guda bizi izan zen bertan. Rio de Janeirok 2016ko Joko Olinpikoak jasoko ditu eta, aurretik, Foballeko Munduko Txapelketa hartuko du Brasilek 2014ean, horrela, **Lularen** gobernuak (azaroan bera zegoen buruan) hainbeste urteetan herrialdeari hainbeste kalte egin dion gaitza uxatu nahi zuen modu horretan.

Rio de Janeiroren orografia nahiko berezia da. Kostaldean izanda, muino asko ditu eta, bestetik, jende ugari bizi da bertan (11 milioi lagun). Favelak, horrela, hirian bertan daude. Hau da, ez daude zentrotik urrun. Ipaneman izanda, alboko faveletako tiroketak entzun zitezkeen, eta narkoen aginduz hainbat auto kiskali ziren Copacabana eta Ipaneman bertan.

## Kristo Erredentorea.



Rio de Janeiroko favelak.



# Brasil

**Osmar** taxi gidariak argi azaltzen zuen bezala, elkarren alboan daude auzo txiroak eta dirudunak, metro eskasetara. Osmarrek, hala ere, argi utzi zigun kontu bat: faveletako %96a gutxi gorabehera jende zintzoak betetzen zuen, modu batean esatearren. Hau da, gutxiengoa zen guztiz narko eta inguruko kopurua, baina euren fama da mundura zabaltzen dena favelen gainean berba egiterako orduan.



Edozein hiri handik bezala, Rio de Janeirok bere auzo txiroak ditu: horiek dira favelak. Ka-

sua da, polizia gutxitan sartzen dela bertan, narkoek kontrolatzen baitituzte favelak. Euren kontrolpean badaude ere, Brasil osotik joandako langile, pertsona nagusi, haur eta bertan bizi diren pertsonen auto-kudeaketa da favelak aurrera ateratzeko bidea. Ura, elektrizitatea, eskolak, osasuna... bereak eta bi egiten dituzte horiek lortzeko, baina Rio de Janeiro bezalako hiri handi baten barruko hiri hauek maneiatzen dituzte. Ez da dena zoritxarra, nahiz eta egoera ia jasanezina izan.

Auto-kudeaketa horren ondorioz eta Rio de Janeiro hiri turistikoa izanik, tourrak antolatzen dituzte faveletan zehar. Ez da inolaz ere hango bizitza erreala ikusi ahal izango, baina kanpotik pasaezina den barrera zeharkatzea ahalbidetzen dute. Era berean, 'Favela party' ere antolatzen dute. 'Gui' talde bat funky brasildarra dantzatzeko favelako gazteen artean. Bitxia. Zoragarria.

Horrelako irteerak aterpetxeetan eskaintzen dira bidaiarientzat. Alexek ezinbestean egin behar genuen zerbait zela aipatu zigun. Eskerrak eman behar dizkiogu, zalantza gabe. Berak, bitartean, burua beste leku batean zeukan, beste favela batean, bere jatorriko favelan. Armada hara eta hona, gora eta behera zebilen bere familia bizi zen auzoan. Beretzat ez zegoen inolako 'party'-rik.

## Alex lagunarekin.







**GORENAK**

EUSKAL HERRIKO  
SAGARDO GORENAK

VERBODEN TOEGANG  
TOEGANG VERBODEN

# EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK

## SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA



HAIKUR IZAN DIRA AUREKATUAK.  
FROBAKIK GOGORRENAK GAINDITU DITUZTELAKO.  
KALITATE ETA PROFESIONALITASINEAN NAGUSSI DIBELAKO.  
HOBIRIKATIK DABARATTE SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOAREN 144 PIL DITETA.



*Badira berrogeitaka urte Usartza aldi eromerixia ixildu zala, baiña atzera be jendia dantzan ipintzeko asmua dake hainbat lagunek. Lastur aldi martxan daguan proiektuak izaten diharduan arrakastarekin animauta, gurian be eromerixia girua berpizteko ahalegiñetan dihardue Krabeliñ hoteleko Mireia Alonso eta eromerixia sasoi betian ezagutu eben hainbat lagunek, tartian Francisca Gisasola, M<sup>a</sup> Elena Alberdi eta Andres Garate. Eurak ekarri deskue gogora Usartza aldeko eromerixia horren gaiñekuak.*

## Soiñujolien erritmora atzera be dantzan Usartzan

**D**omekero, arratsaldian hasi eta gabeko 22.30-xak aldera amaitzen zan eromerixia. Jende mordua batzen ohi zan asteburuoro, “200 bat lagun edo izango giñan”. Arratetik, Bariñagatik, Mallabiatik, Elgetatik, Eibarko beste basarri auzuetatik... eta basarrietatik ez eze, kaletar asko be animatzen ziran, “ez pensau gero bakarrik basarritarrak juntatzen giñanik, kaletar mordua etortzen zan hona, dantzara. Jende alegria batzen giñan astero astero”.

Erretratu zaharrerri begiratzan hasitta, urtiak alperrik ez dirala pasatzen begibistakua da, baiña bakarrik erretratueri begira ikusten ez diran beste kontu batzuk be kanbixau egin dira denpora honetan: “Tabernara, adibidez, bakarrik mutillak sartzen ziran, neskek ez giñan sekula barrura juaten. Orduan, zeozer edatia nahi bagenduan, mutillen batek ‘Kas’ edo holakoren bat noiz etarako zaiñ egoten giñan, baiña zenbat bidar bueltau gara etxera hiruzpalau ordu dantzan jardun ostian ahua sikua etxera!”.



### Danak danekin dantzan


Baiña modernuak be baziran beste hamaika kontutan, dantzarako pareja aukeratzeko orduan, adibidez: “Nobixua eukitta be, beste mutillekin dantzan jarduten genduan bardin bardin eta mutillak gauza bera egitten eben, beste neska batzurekin dantzan jarduten eben. Eta pieza bakoxtaren ostian bikotia kanbixatzen genduan beti, ‘cambio de pareja’ egitten zan, erregular. Ah, eta mutillak dantzarako eskatzen zeskuenian beti ‘mesedez’ eskatzen eben”.

Hori ondo gogoratzen dabe halako eromerixia batian alkar ezagutu eben M<sup>a</sup> Elenak eta

Andresek. Azken honek, gaiñera, beste askoren moduan oiñez egitten zittuan basarritik eromerixarako bidian eguzen kilometruak: “Orduan sasoi ez eguan ixa automobilik, eta egotekotan zeñek zekan ba! Gu mendixan oiñez ibiltzen giñan, eta gaberako linternia eruaten genduan, hori linternia

eguanian! Bestela be, ondo ezagutzen genduan bidia”.

Erromerixia Usartza barruan izaten zan, “batzuetan kanpuan be egitten genduan dantzan, eguraldi ona eguanian, baiña gehixenetan barruan egoten giñan. Eta, lantzian behiñ, amantia urtetzen eben, baiña eskandalo barik”.



**MIREIA ALONSO**, antolatzaillia:

## “Egun-pasa polita egitteko aukeria eskindu nahi detsegu animatzen diraneri”

**- Zelan pentsau zenduen holako erromerixia antolatzea?**

Ba heman jendiak goguan zekan oin dala urte mordua Usartzan egitten zanekua eta iaz, horren harira, zeozertarako ahalegiña egin genduan bazkarixa antolatuta. Baiña, egixa esateko, erromerixara juaten ziranetik gitxi animau ziran eta oinguan jende gehixagok parte hartzia gustauko litxakigu.

**- Hamen baiña lehenago, beste toki batzuetan be hasitta dagoz holako ohitturak berreskuratzeo biharrian, erromerixak eta holakuak antolatzen, ezta?**

Bai, izan be guk Lastur aldian jarduten dabon Bixenterekin berba egiñ ostian animau giñan. Han hillero, kasu batzuetan ixa asteburuero dihardue erromerixak antolatzen eta pentsau genduan polita izan leikiala bira moduko bat antolatzea, kanbixatzen nahi dabonak horretarako aukeria euki deixan.

**- Ixa asteburuero erromerixia antolatzea ez da lartxo izango?**

Geure asmua, apirilkeko honen inguruko erantzuna ikusi eta urtian pare bat antolatzea litzake, jendiak holan gustura hartuko leukiala uste dogu, larregi antolatzen jardun barik. Momentuz esku artian dakagun honekin domekan egun-pasa polita egitteko aukeria eskindu nahi detsagu jendiari, ondo bazkaldu eta betiko musikiakin dantzan ederto pasatzeko aitzakixa emotia. Gerora begira, ingurukuekin alkarlanian kalendarixo bat osatu eta bira modukua egitteko asmuari buelta batzuk emoten segiduko dogu.



## Apirillaren 10eko jardunaldi berezixak bazkarixa eta erromerixia batuko ditte

eskaten hasi giñan. Baiña, seguruenik, harrezkero tratua eukiko eban eginda orduko soiñujoliarekin eta, holan, ezetz eta ezetz, ez ebalak kanbixauko esaten zeskun. Eta guk soiñujole gaztia nahi genduala eta kanbixatzeko. Holan, hiru hillebete emongo genduaz Usartzara juan barik, denpora horretan Santa Kurutzen eta beste toki batzuetan ibilli giñan. Eta azkenian lortu genduan soiñujolia kanbixatzia! Penia be hartu eban tabernarixak juatiari laga gentsalako, baiña geuk geuria lortu genduan azkenian eta pozik hartu genduan kanbixua”. Inguruko beste toki batzutan be antolatzen ziran erromerixak, baiña Usartzakuak ei zekan jarraitzaile gehixen, “Santa Eufemian aldi berian 4 edo 5 soiñujolek jarduten eben arren”.

Apirillaren 10erako, domekarako preparatzen diharduen jardunaldi berezixak bazkarixa eta erromerixia batuko ditte, bata bestiaren atzetik.

14.00xetan hasiko da bazkarixa, Arraten, Krabeliñ hoteleko jatetxian. 30 euro pagauta, BEZ barne, bieira gaiñerria, arrain zopia, legatza laban, postria, ogixa, edarixak eta kafia hartuko dabe izena emoten dabonak eta, jarraixan, Angel Pérez Sarasketa soiñujoliak joko dittuenak dantzatzeko aukeria eukiko dabe. Erreserbak egitteko eta txartelak erosteko 943202727 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, zuzenian Krabeliñera juan.

## Pasodobliak, balsak eta tanguak

Soiñujoliak jarduten eban erromerixako musikia eskintzen, “hamen ez eguan trikitixarako ohitturarik, Aia eta beste alde batzuetan bai, han trikitixa dantzatzen eben denpora guztian, baiña Usartzan ez. Hamen pasodobliak, balsak, tanguak... holakuak dantzatzen genduaz. Eta politto egitten genduan, eh? Batzuk bestieri begira ikasten genduaz pasuak, komeni, gaiñera, iñork ez ebalako barregarri geratu nahi bestien aurrian”. Usartzan ibillittako soiñujolien artian Ermere eta Benito Baskaran gogoratzen dittue.

## Soiñujolia kanbixatzeko greba

Eta soiñujoliak aittatuta, Andresek horren harira egindako greba ekarri nahi izan desku gogora: “Soiñujolia zaharra begittantzen jakun eta, horregaitik, tabernarixari kanbixatzeko



Ingurukuen aldian, Usartzakuak zekan jarraitzaile gehixen.



TEEN-  
AJEA

**Bias de Otero Fundazioak eta Bilboko Udaleko Kultura eta Kezkuntza Sailak antolatutako argazki lehiaketa irabazi du 17 urteko Lorea Citoresek. La Sallen dihardu ikasten, Batxilergo Zientifiko-Teknikoa, eta ezusteko ederra hartu zuen "En el principio" poemari inspiratutako argazkiarekin lehenengo saria irabaztean. Bide berriak zabaldu zaizkio.**

**LOREA CITORES, "Bias de Otero"-n saritua:**

## "Jasoko dudan kamara da lehendik nahi nuena"

**- Zerk bultzatu zintuen lehiaketan parte hartzea? Aurretik hartu duzu parte antzekoetan?**

Irakasleak komentatu zigun, web orrian begiratu eta animatu nintzen. Aurretik bakarrik DVko egutegirako bidali izan ditut argazkiak, Azkoitiko kaleetan ateratakoak. Kale-irudiak behar zituztela ulertu nuen; gero konturatu nintzen bestelako paisaiek ere bazutela tokia.

**- Eta, argazki mundutik kanpo, sariak jasotzera ohituta zaude arte arloan?**

Marrazketan ondo ibili naiz beti, baina denborarik ez dut izan eta bost urtetan ez naiz ezertara aurkeztu. Aurten Aratosteetarako kartelerako egin dut zeozer.

**- Askok kostatu zitzaizun argazki irabazlea egitea? Itxaron egin behar izan zenuen beharrezko konposizioa lortu arte?**

Poema irakurri eta berehala bururatu zitzaidan; gero beste poema batzuetarako ere landu nituen beste batzuk. Bestalde, eguraldiak ere lagundu behar zidan eta, terrazara igo, eta egun hartako eguzki ederrarekin jokatu nuen. Idazleak duen preziatuena bere hitzak dira eta haiei makurtu

eta izpiritu horri jarraitu nion, erreferentziatzen hartuz iazko lan sarituak emakumezko baten sorbalda erakusten zuela.

**- Argazki bakarra egin zenuen?**

Eguraldiak lagundu zidan buruan nuena kamararekin lortzen. Hala ere, argazki piloa atera nituen eta kostatu zitzaidan bat aukeratzera.

**- Zer sari jasoko duzu?**

Aste honetan etxera bidaliko didaten kamara reflexa. Horrelako kamara bat erosteko asmoa nuen, baina garestia da. Gaur egun erabiltzen dudana irailean erosi nuen. Koadrilakoekin ere prestatu nituen beste argazki batzuk, naiz eta gero ez erabili.

**- Argazki asko ateratzekoa zara? Edo bidaietan bakarrik?**

Askok; kamara beti daramat gainean. Mota askotakoak ateratzen ditut, inprobisatuak gogoko-agoak badituz ere.

**- Etorkizuna nondik bideratzeko asmoa duzu?**

Arte Ederrak ikasten hasiko naiz hurrengo ikasturtean eta, mundu zabal horretan, Diseinuaren mundua gustatuko litzaidake lantzea: barne diseinua eta modaren ingurukoa.

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

**etxola**  
**JATETXEA**

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak



● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

## Bea Alvarez Aldatzeko ikaslea Becas Europako finalista

**F**rancisco de Vitoria unibertsitateak antolatzen dituen bekak dira Becas Europa eta Alvarez finalista geratu da 3.000 gazteren artean. Bigarren aldia da Aldatze Ikastetxeko ikasle bat finalera iristen dela: orain dela, hiru urte Ane Zabalak ere irabazi egin zuen-eta beka hori. Maiztean jakinaraziko dute azken hautaketa. Jarraian duzue bere esperientziaren berri, berak lehenengo pertsona kontatutakoa:

*“Europa Beken hautaketa prozesuko azken fasean parte hartzeraz nindoan, Madril-*



*go Francisco de Vitoria unibertsitateak bertan antolatutako asteburua pasatzera; unibertsitatearen esperientzia zertan datzan bizi genezan, hain zuzen ere.*

*Abentura zoragarri hau urrian hasi zen niretzat. Europa Bekak Batxilergoko bigarren mailako ikasleoi daude zuzenduta. Hautaketa prozesua gaindituz gero, hiru asteko bidaiari parte hartzeko aukera izango dugu, Europa osoko unibertsitate garrantzitsuenak ezagutzeko (Bologna, Oxford, Heidelberg...). Aldatze ikastetxeak hautagai aurkeztu ninduen, Oier Pérez eta María Etxeberriarekin batera. 3.000 hautaigaitza baino gehiago jaso ziren.*

*Lehendabiziko bi faseak gainditu nituen: aurrenekoa internet bidez egindako test modukoa izan zen, galdera orokor batzuk zituen; bigarrena elkarrizketa pertsonala zen, Donostian, unibertsitateko arduradun batekin. Eta horrela, urduritasuna gora-behera, iritsi nintzen azkeneko fasera.*

*Horrela iritsi ginen 206 neska-mutil Madrileraz, beldurrak tripak janda. Magikoa*



*izan zen, ordea, asteburua; denetarik egin genuen, unibertsitatearen esperientziari buruzko hitzaldiak; talde-lana sustatzeko gymkhana; trebetasun-ikuskizuna gauetz; Santander Bankuko finantza-hiria bisitatu, Emilio Botín presidentearekin egon... Batez ere, benetako lagunak ezagutu ditut”.*

Bea Alvarezek, baina, esker onekoa izanik, fasez-fase berarekin izan diren inguruko guztien laguntza eskertzen du eta baita Aldatzeko arduradunena ere, berarengan jarritako konfiantzagatik. Orain azken urratsa geratzen zaio egiteko. Ea zortea duen!

## Gaur agurtuko dira Uni Encounter jardunaldiak

**A**urreko barixakuan abiatu ziren Uni Encounter jardunaldiak, Portalean egindako aurkezpenarekin eta UniSkills Sarien banaketa-ekitaldiarekin. Iazko urte amaieran web orrialdean diseinuaren inguruko olinpiada modukoak jokatu zituzten ikastetxean eta argazkian ikusten dituzuen gazteak UniSkills direlakoetan nagusitu zirenak dira, saria jasotzen. Ekitaldia biribiltzeko, Daniel Armendarizek software libreak buruzko hitzaldia eman zuen eta hortik aurrera, egunero internet eta teknologia berrien lotutako jardunaldia hartu du

Uni Eibar-Ermua ikastetxeak, Ermuko bere egoitzan. Azken jardunaldia gaur 16.00etan abiatuko da hainbat jokoren inguruko txapelketekin. Sari garrantzitsuak banatuko dituzte irabazleen artean, gainera. Txapelketak jarraian aipatzen ditugun jokoen ingurukoak izango dira: Guitar Hero (100 euro irabazlearentzat eta 50 euro bigarren onenearentzat), Counter Strike (5 lagunekoko taldeentzat, 300 euro lehenengoarentzat eta 100 euro bigarrenarentzat), Blur (100 euro eta 50 euro) eta Call of Duty: Black Op. (100 euro eta 50 euro).



UniSkillseko azken edizioko irabazleak. / MAIALEN BELAUSTEGI



## M<sup>a</sup> CRUZ SAN MIGUEL ARGUINZONIZ

(ANDRES GARETXANAREN ALARGUNA)

### 1. URTEURRENA (2010-III-22)

ZURE OROITZAPENAK GUREAN DIRAU  
ETXEKOAK



# GREMIOEN

# GIDA



## ANTENAK

**BALATZ** C.A.  
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g  
Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com

**trinmer**

TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## AROTZAK

**IÑAKI**

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 55 55

Aroztegia □ Ebanisteria  
□ Obra aroztegia

**C** **N**

Egiturak, barruko eta kanpoko atekak, armairu enpotatuak, tarimak, parketak, rodapiesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
TELEKOMUNIKAZIOA  
INDUSTRIA BANTERUA  
ARREGLATUAK  
BERRIKOTZAK

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -  
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD**  
**ETA B.S.L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA  
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75  
Mobila. 647 90 66 20 / 607 71 38 73

**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaita eta  
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak  
• Mantenimendu  
eta automatismoak

**MANTELEC, S.L.**

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44  
Faxa. 943 20 85 48

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS**  
**ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ARRAGUETA 12 -Eibar- ROSARIO 15 -Elgoibar-  
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

## GARBIKETAK

**escudero**

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13  
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94  
www.escudero.euskalnet.net

**CRISTALUX**  
Limpieza

- Mantenimendu garbiketa  
- Kristal garbiketa  
- Garbiketa orokorra  
- Garbiketa bereziak

cristaluxe@gmail.com  
Tfnoa. eta Faxa:  
943 20 65 08  
Mobila:  
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

**Limpieza**  
**Multiservicio**  
**Eibar**

Superfizie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta mantenimendua

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

– Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

**Jardiñeta, 25** - behea  
Etxeko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104



**IRAZABAL**

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANS GROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
ERREKATXU 3<sup>an</sup>

eta faxa: 943 20 39 03

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



**Pinturas Elias e Hijo, S.L.**

**pintura eta estaldura mota guztiak**

BARAKALDO, 7  
Telefonoa: 943 12 05 02  
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



**MALVAR PINTURAS**

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



**Pintura Goi mailako dekorazioa**

Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxa: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

## SARRILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalaketak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guzietako giltzen kopiak  
Trabatutako atearak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391  
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99


## Arratek puntu interesgarria lortu zuen Antequeran

**IRABAZTEKOTAN ERE IZAN ZEN, HAMAHIRU SEGUNDO-REN FALTAN** irabazten zioalako. Atsedenaldirako sei golen aldearekin galtzen ari zen Antequeran, baina Julian Ruizen taldeak bigarren zatian hobeto jokatu zuen eta aurkaria ordu laurden luzea izan zuen golik sartu ezinean. Beljanski pibo-

tea izan zen onena erasoan, zazpi golekin, eta gazte bik jardun zuten bikain: Szabok bost gol sartu zituen eta Igor Moyua ordezko atezainak geldiketa bikainak egin zituen. Yeray Larmariano eibartarra Andaluzia-ko taldearen atezaina izan zen.

### Torrevieja hartuko du bihar Ipuruan

Ipuruia betetzeko unea iritsi da eta, denboraldi amaierarako geratzen diren partiduetan, zaletuak guztia eman beharra dute Asobal ligako taldeak mailari eutsi diezaion. Biharko partida da hil ala bizi horietako lehena, Arratek Torrevieja hartuko baitu 19.30etan. Bestalde, datorren eguaztenean taldeari laguntzeko jokatu den Reala eta Eibarren arteko neurketa 20.30etan hasiko da.




## Klub Deportiboaren batzarra gaur arratsaldean

**URTEROKO OHIKO BATZAR NAGUSIAREKIN BATERA, GAINERA, BESTE EZOHIKO BAT ERE IZANGO DA** oraingoan, bestearren jarraian egingo dena, Euskao Jaurilaritzaren kirol elkarteei buruzko iaz onartutako Dekretura egokitze-ko klubaren estatutu berriak onar-

tzeko balioko duena. Ohikoa 20.00etan hasiko da, bigarren deialdian, eta hiru ordu laurden geroago ekingo zaio bigarrenari. Lehenengoan, gainera, hainbat batzordetako zuzendaritzak berriztuko dira: Mendia, Txirrindularitza, Eskia, Dantza, Argazkilaritza eta Kultura.

## Azkoitia-Azpeitia lasterketa aurkeztu dute

**GAUR EGUN DIEGO GARZIAREN OMENEZ EGITEN DEN LASTERKETA HORRETAKO 18. EDIZIOA** da aurten goa eta herriko lasterkariak hor dute zita, hilaren 26an arratsaldean jokatu den proban, 16.30etan hasita. Dena dela, proba horretatik aparte aurten ekitaldi berezia izango da hurrengo egunean: domekan, eguerdiko 12.30etan hasita, Mariano Haroren 10 kilometrotako marka hobetzeko ahalegina egingo da. Horrekin batera, omenaldia egingo zaio Harori berari eta Iruntxiberriri, trindoor saioa egingo da eta Aimar Irigoien harrijasotzailea beste marka bat egiten ahaleginduko da.



Aurreko edizioetan moduan, helmuga Urkizun izango du probak. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Abascal Memoriala jokatu da domeka goizean

**KADETE MAILAKO LASTERKETA HORREK 32. EDIZIOA JARRIKO DU JOKOAN** etzi, goizeko 10.30etan hasita, parte-hartzaileek ia betiko ibilbidea betetzeko. 55 kilometro eta erdi izango ditu probak eta,

Eibartik irtenda, Mendarora jo-ko du lehenengo, hortik Maltzagara bueltatu eta Bergaraino jotzeko. Bergaraino Eibar-rrera etorriko da eta azken esprinta Urkizu pasealekuan izango da, 12.00ak inguruan.

## Eibarko Rallysprint-a denboraldiaren amaierara

**ESCUDERÍA EIBARREK EKAINAREN 11-N ANTOLATU BEHAR ZUEN** Eibarko Rallysprint-aren lehenengo edizioa bertan behera geratu da momentuz egun horretarako ez baitu jaso Trafiko Zuzendaritzaren baimenik. Aurretik Escudería Eibarkoek Arrateko auto igoera laga behar izan dute bertan behera, babesle faltan, baina oraingoko honi aurre egin eta denboraldia amaitu aurretik rallysprint proba antolatze-ko asmoa dute.



## Aretoko Debabarrenak etxean jokatu du

**ASTE BURUKO HIRU PARTIDUAK ETXEAN JOKATZEA EGOKITU ZAIE** Debabarrena areto-foballeko hiru taldeei. Infantil mailako taldeak bihar goizean jokatu du, 10.30etan hasita, Unibertsitate Laboralean; eta, jarraian, 11.45etan, jokatu dute kadete mailakoek. Kasu bietan Arizmendi izango dute aurkari. Gipuzkoako 1. mailako taldeak, bestalde, Anoetako hartuko du asteburu honetan. Azken jardunaldian kanpoan jokatu zuten hirurek: nagusiek 7-3 galdu zuten, kadeteak ere galtzaile izan ziren (5-4) eta infantilak irabazle (4-8).



## Urrezko lau domina eskuratu ditu Ander Romaratek Espainiakoetan

**ASTEBURUAN MALAGAN JOKATUTAKO AUTONOMIEN ARTEKO TXAPELKETAN** Urdat-eko igerilariak lau garaipen lortu zituen Euskadiko selekzioa ordezkatzuz. Braza modalitateko 100 metroak, tximeleta erako 50ak, 200 metro estiloetan eta, zelan ez, bere

proba gogokoenean, bizkar erako 100 metrokoan podiumaren goi-goian izan zen eibartarra. Espainiako markak egiteaz gain, Europako txapelketarako gutxiengo markak ere lortu ditu Romaratek, erreleboetako bronzetzeko beste hiru dominekin batera. Markel Alberdik CAI Zaragoza Hirian hartu zuen parte, bertan Madrilgo Opena prestatzeko eta 2.a izan zen 200 metro libreetan eta 3.a 50ekoan.



Ander Izagirre podiumean. 100 metrokoa irabazteaz gain, 3.a izan zen 200ekoan.

### Ander Izagirre, Euskadiko txapeldun

Aurreko astean infantil mailako Euskadiko txapelketei buruz emandako informazioan, Urbateko ordezkarien lorpen handien artean nagusienak ihes egin zigun: Ander Izagirrek Euskadiko txapela jantzi zuen eta Espainiarako gutxienekoa eskuratu 100 metro libreetan.

## Erreal eta Eibarren arteko partidua Ipuruan eguaztenean

**ARRATEREN ALDE DIRUA JASOTZEKO ASMOAREKIN REALAREN ETA EIBARREN ARTEKO** partidua jokatu da eguaztenean Ipuruan, 20.30etatik aurrera. Horrez gain, Manixen taldeak Lezaman jokatu du hurrengo jardunaldiko norgehiagoka, eguerdiko 12.00etan. Azken partiduan Real B-rekin



Ipuruan berdindu eta gero, lidergoa galdu dute Alavésaren mesedetan (talde biak berdinduta daude). Gertutik jarraitzen die Pouso Eibarko entrenatzaile izandakoak zuzentzen duen Mirandésekin eta Irungo Real Unión ere gero eta indartsuago dator.

## Hierros Anetek domekan hasiko du Unben igoerako play-offa


**OHOREZKO B MAILARAKO IGOERA FASEA HASIKO DU DOMEKA EGUERDIAN** Hierros Anetek 1. nazional mailako A multzoko lehen sailkatuaren kontra. Crat Universidade da Coruña izango dute aurrez-aurre Isasaren mutilek Unben, eguerdiko 12.00etatik aurrera jokatu den partiduan, handik astebetera itzulerako partidua

jokatzeko Galiziako lurretan. A Coruña taldeak tradizio handia du rugbian eta hainbat denboralditan estatuko rugbiaren urrezko eta zilarrezko mailan jardun izan du; denboraldi honetan, gainera, partidu bakarra galdu du. Kanporaketa hau gaintzen badu, Eibar Hierros Anetek bigarren fase bati ekin beharko dio mailaz igotzeko.



## Bihurri mundu markaren bila Berrizen

**BIHAR GOIZEAN, 10.00-ETATIK AUERRERA, AHALEGINDUKO DA ERNESTO EZPELETA "BIHURRI"** aizkolaria bere munduko hirugarren marka lortzen. Oraingoan hiru metroko perimetroko enborra moztzen ahaleginduko da esku bakarrarekin, bi metro eta erdikoa moztu zuen toki berean, Berrizko plazan. Lan nekeza izango du aurrean eta amaituko ote duen aditu askok zalantzan jartzen dute; baina bera itxaropentsu dago eta indartsu sentitzen da. Ohituta dago Bihurri lan luzeetara eta beldurrik behintzat ez diola ziurtatu digu. Orain arte egin duen lan gogorrena 5 metroko perimetrokoa mozterakoan hartu zuen Bihurrik: ia 5.000 aizkorakada eman behar izan zituen, ia lau ordutan, halako enbortzarra mozteko.



## Binakako pilota finalerdia domekan Astelenan

**PILOTA PROFESIONALEKO BINAKAKO TXAPELKETAKO AZKEN FASEAN SARTUTA,** lehenengo jardunaldiko González-Laskurain eta Xala-Barriola bikoteen arteko lehia izango dugu domekan Astelenan. Jaialdiko partidu nagusia izango da berau eta, aurretik, Retegi Bi eta Merino Idoate eta Zaba-

laren aurkakoa jokatu da; jaialdia amaitzeko, bestalde, Ongay-Larrinaga eta Jaunarena-Arruti bikoteek neurtuko dituzte indarrak.

Deba Arroko txapelketaren barruan, bestalde, Unamunzaga-Bengoetxea Deporrek ordezkariak erraz nagusitu ziren (22-5) Eskoriatzako bikotearen aurrean.



## AUTEK BERE ONENA emango du gaur Coliseoan

Aurkezpenik behar ez duen idazlea, pintorea, zinemagilea... baina gaurkoan batez ere musikaria izango dugu Coliseoan, gaueko 21.30-etatik aurrera. Gure herrian orain dela aste batzuk sortutako Jai Productions enpresaren eskutik dator Luis Eduardo Aute gurera, iaz grabatutako "Intemperie" diskoa aurkeztera. Hasierako asmoa kontzertua Astelena frontoian eskaintzea bazen ere, "arazo teknikoak tarteko" berau Coliseoan lekuz aldatzea pentsatu dute. Azken diskoaren aurkezpena izango da Euskal Herriaren Auterako eta, bi ordutik gorako kontzertuan, horko abestietatik aparte, bere erreperatorioko gehien entzundakoak ere eskai-

niko ditu. Hor izango dira "No te desnudes todavía", "Pasaba por aquí", "Mira que eres canalla", "Rosas en el mar", "Dos o tres segundos de ternura", "Aleluya", "Las 4 y diez", "Albanta" eta, zelan ez, "Al Alba".

"Intemperie" lana irailean grabatu zuen Autek, Madrilgo Cézarne estudioetan, Tony Carmoñaren zuzendaritzapean. Azken horrenak dira moldaketa gehienak eta musikarien taldea berak (gitarrak), Igor Tukulok (pianoa, akordeoia eta teklatuak), Javier Sáizek (baxua) eta Fernando Favier-ek (bateria) osatzen dute. Musikalitate handiko kontzertua eskainiko du, luxuzko produkzioan bilduta. Betiko soinu ezaguna eskainiko digu, inguruarekiko



sentimendu kritikoenak "ahots leun eta balsamikoarekin lagunduz, guztia ere etsipenak harripa ez gaitzan gainean dugun mundu honetako krisialdian". Maitasuna moduan, maitasun eza ere presente da beti Luis Eduardo Auteren abestien letretan eta, konpositore moduan, Massiel, Manolo Escobar, Juan Manuel Serrat, Mari Trini eta beste hainbatentzat idatzi izan du. Patxi Andionentzat ere bai, eta baita Rosa Leónentzat ere: "Al alba" abesti entzutetsua gehiago lotzen du jendeak azken

horrekin Auterekin berarekin baino. Kantautoreen figura indarra galtzen joan zenean ere, berak musika munduan jarraitu zuen, "Cuerpo a cuerpo"-rekin bere onena kanporatuz. "Intemperie" azken lan honen aurretik, "Memorable cuerpo" kaleratu zuen 2008an eta "A día de hoy" urtebete lehenago.

Gaur gaueko kontzerturako sarrerak oraindik Ayerbe liburutegian eta Portaleko taberna, Birjiñape, Trinkete, Terraza, Arno eta Caserío tabernetan erosi daitezke, 20 euroko prezioan.

## QUEBEC-EKO ERREGGEAK hilaren 26an

Quebec-eko arrakasta aurkezpen txartel bihurtuta: horrela etorriko dira Coliseoan hurrengo barixakuan, hilaren 26an, Nicolas Pellerin et Les Grands Hurleurs taldekoak. Gurean eskainiko duten kontzertua 20.00etan hasiko da eta Euskal Herriaren emango duten hiruetatik bigarrena izango da: bezperan Bergarako Zabalotegi Aretoan izango dira eta hurrengo egunean, zapatuan, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Hemengo kontzertuez gain, beste hiru emanaldi eskainiko dituzte Katalunian, honaino egingo duten bira aprobetxatuz.

Kanadako Quebec-en folk disko onenaren saria bereganatu duen hirukotea Nicolas Pellerinek (ahotsa, biolina, kaxa eta oinak), Simon Marionek (ahotsa, gitarra eta mandolina) eta Simon Lepagek (ahotsa, baxua, kontrabaxua, synthes eta loop) osatzen dute. Quebec-ek berriro ere zur eta lur laga ditu zaletuak bere eskaintza neo-folk eta tradizional garaikidearen eskaintza handi horrekin eta Nicolas Pellerin eta Les Grands Hurleurs izan dira azken urtean sari gehienak bildu dituzten ordezkariak. Hiru

abeslari eta askotariko musika tresna jotzaile, jatorrizko erreperatorioen eta konponketa burutsuen gose, ohikoa gaudituz eta bide berriak jorratuz, beren musika ekarpena egiten digute, bestelako eraginez zipritindurik eta ñabarturik, modu mehe eta xarmangarrian.

Zuzenekoetan loratzeko xedean pentsatutako musika da eurena. Beti ere, entzulea liluratzeko eta emanaldietan lagun berriak egiteko xedearekin, agertokia groove eta giro aberatsez betetzen dute harien mugak beren muturretara eramanez. Ez hori bakarrik, malabarismoak ere egiten baitituzte musika tresna ugari baliatuz: ahotsak, biolina, gitarrak, mandolina, baxua, kontrabaxua, lehen biolina, loops, synthes, perkusioa zangoekin, kaxa...

2009. urtean osatu zenez geroztik, Euskal Herriaren au-

reneko bira eskainiko badu ere, talde hau Kanadan, AEBetan eta Europan barrena ari izan da. Eta, aipatutakoa: orain dela gutxi taldeak Quebec-eko Felix de l'ADISQ Saria jaso du, musika tradizionalari emandako albumik onena osatzeagatik.



# MURDER PINK, urtebete egin duen proiektuaren disko berria

**2010-EKO OTSAILEAN ABIA-TU ZUEN PROIEKTUA SEI LAGUNEZ OSATUTAKO LANTALDEAK.** Aitortxu abeslariak (Txapelpunk, Etsaiak eta Sortu-ekin egindako bira amaituta) gordeta zituen letrak atera zituen eta aurremaketa grabatzerara jo zuen estudioa, beste bost kote batez lagundurik. Tartean dago Ara amañatarra (honek baxua jotzen du eta gure herriko ordezkari bakarra da); koroak ere egiten ditu, Alberto gitarrarekin batera. Pedro gitarra eta Andoni bateria dira, Unai soinu teknikoarekin batera, taldea osatzen dutenak. *"Ira argazkilaria ahaztu barik"*, dioskue gurekin egon diren Ara eta Aitortxuk.

Irailean grabatu zuten "Hollywood" euren lehen diskoa, hainbat taldetako musikariren elkarlana eta parte-hartzea aprobetxatuz. Hor izan zen *"Etsaiak-eko jendea (Auo, Iñi-guito, Toki eta Artrofi), Ratzin-*

*ger-eko Podri, Subversion X-eko Iñaki, Nuk-at taldeko Iñaki, Lorebeltz-eko Amaia eta Nohu-mano-ko Ivan, esaterako"*, gogoratzen dute. Madrilgo Cactus Records diskografikoak editatu zuen lana eta Idaba Music-eko estudioak baliatu zituzten. Orain arte 40 kontzertutik gora eskaini dituzte eta badituzte beste hamar bat hitzartuta *"eta data zehaztuta"*. Madrilen eta Santanderren izan dira; eta, hemengo kontzertuetatik aparte, etorkizun hurbilean kanpora irteten jarraituko dute. *"Aste Santuan Murtzia aldean joko*

*dugu eta udarako, fetxa barik oraindik, baina lotuta ditugu hainbat kontzertu Katalunian"*.

Diskoa kaleratu berri, Eibarren eman zuten euren bigarren kontzertua: *"Koskor-en izan zen. Gustatuko litzaiguke Amañako jaietan -bertakoa izanda"*, dio Arak- edo Sanjuane-tan jotzea". Horretarako aproposa ikusten dute, egiten du-



Aran eibartarrak baxua jotzen du taldean.



Aitortxu da, abeslaria izateaz gaim, taldearen sortzaile eta arima. Aldamenean, Aran.

*tzeko aldekoak gara*". Abestietan aukeratutako gaiak espreintzia pertsonaletatik abiatzen dira eta Aitortxu abeslariak hainbatetan erabilitako *"hau ez da Hollywood"* esalditik irten zen lehen diskoaren izenburua. Euren musikak 80. hamarkadako estiloari jarraitzen dio, koro ugari eta errepikak erabiliz, *"arin hartzeko doinuekin, pegadizoak esaten dena"*.

Kaleratutako diskoko abesti guztiak gazteleraz badira ere, Durangoko Azokarako *"denak euskaratuta eta lau tema berriekin beste bat aterako dugu"*. Irailean hasiko dira hori grabatzen eta badituzte, dagoeneko, beste bost abesti berri ere *"2012an kaleratuko dugun hurrengo diskorako"*. Bitartean, areto zein gaztetxeak bisitatuko dituzte *"errepide askotxo"* egin dituen taldeko protagonistek.

ten musikaz aparte, eskaintzen duten ikuskizuna: *"Zuzenekoak gara, eszenario handikoak, ikuskizuna eskaintzekoak"*, argumentatzen dute biak batera.

Punk-rock musika eskaintzen dute Murder Pink-ek. Normala denez, Etsaiak-en soinua nabaritzen zaie. Hortik kanpo, *"jendea kokatzeko, Ramonesen rock-ean aurkituko dute antzekotasunik"*. Zuzeneko ikuskizunetan manikiak, eskeletoak... *"eszenategia orna-*

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**


K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



Mikel Fuentes eta Alberto San Emeterio herriko DJ ezagunenak dira. Gazteak izanda ere, esperientzia asko dute eta DJ'S Dance Club Saioa sortu dute Formula Hit irratian. Facebook-en milaka lagun batzen dituzte eta haien blogeko sarrerak komentatuak dira beti. Haien saioaz gozatzeko aukera daukatzue martitzeneko, arratsaldeko 20.00etatik 22.00etaraino.



MIKEL FUENTES & ALBERTO SAN EMETERIO:

## "Irratian Dance Musika eskainiz gure ametsa errealitate bihurtu dugu"

**- Zein da zuen publikorik nagusiena?**

Gure entzule gehienak gazteak dira, baina gure programa ez da horietara bakarrik mugatzen. Gure helburua musika elektronikoa ezagutzera ematea da; beraz, saio erakargarriak prestatzen saiatzen gara.

**- Eibarrera bakarrik mugatzen da zuen irrati saioa?**

DJ'S Dance Club saioarekin hasi ginenean, Eibarrera eta eskualdera mugatzen ginen bakarrik, baina gaur egun gure seinalea Madrilerara, Bartzelonara, Asturiaseara... ailegatzeko da.

**- Hedapen estrategia berririk badaukatzue?**

Lehenik eta behin, gure irrati katean (Formula Hit) toki handiagoa lortu nahi dugu, estatu mailako emisio indartsuagoa lortzeko. Hori lortuta, babesleak gureganatzea gustatuko litzaiguke, kalitate gehiagoko produktua eskaini ahal izateko, beti ere hartzailearen onerako.

**- Zuen irrati saioak interneten eskuragarri daude?**

Gure entzule askok internet hautatzen dute gure saioak entzun ahal izateko; horregatik, podcast artiboak eta zuzeneko emisioak ditugu gure blogean, baita irrati katearen web-gune ofizialean ere.

**- Zuen marketing kanpainarekin jarraitzeko asmoa duzue? Proiektu berezirik bai arlo horretan?**

Gure saioa ezagutarazteko hainbat proiektu daukagu eskuartearen, hala nola gure saioa eskuragarri jartzea interneteko web-orri espezializatu batzuetan.

**- Evolution FM irrati nazionaletik ibili zarete elkarrizketatuak izateko... Zuen lanbideko jendearekin egoteak saioa hobetzen laguntzen dizue?**

Bai, noski, esperientzia hori bizi izanak maila handiko profesionalarekin asko lagundu digu, batez ere beste ikuspegi batetik ikusten ditugulako orain gauzak.



## Kultur Astea Hizkuntza Eskolan

**ASTELEHENETIK AURRERA EGUNERO HIZKUNTZA BATI ESKAINITAKO EKITALDIEN BAT HARTUKO DU** Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialak, Kultur Astearen harira. Hilaren 21ean, astelehenean "Kantuan Asier Serranorekin" izenburukoa 18.30etan hasiko da (Hizkuntza Eskolan); martitzeneko "Münster, eine liebesgeschichte" delakoa, Nicole Kroslen eskutik, 18.00etan (Portalean); "Entre français, mon se comprend... ou presque!" izenburukoa, Coralie Segot eta Gaëlle Dedereck-en eskutik, 18.30etan (Hizkuntza Eskolan); eta "The Johnny Kinniard trio" eguenean kontzertua eskaintzen egongo da 18.30etatik aurrera (Pub O'Hara).

## Txirindulari Elkartearen 85 urteak

**BIHARTIK AURRERA IKUSGAI IZANGO DA EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEAREN 85. URTEURRENAREN HARIRA** antolatutako erakusketa. Inaugurazioa 12.00etan izango da, Armagintzaren Museoa eta bertan apirilaren 30era arte egongo da martxan, eguaztenez zapatura 16.00etatik 20.00etara eta domeketan 10.30etatik 12.00etara. Eta Portalean bertan, baina bigarren solairuko erakusketa aretoan, apirilaren 10era arte egongo da martxan erakusketa, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Ohiko ordutegi horretatik kanpora, martxoaren 19an 12.00etatik 13.30etara zabalduko dute, hilaren 20an 11.00etatik 14.00etara, apirilaren 2an 18.30etatik 21.00etara eta apirilaren 3an 11.00etatik 14.00etara.



## "Hartzeko pronto, emateko tonto"

**XABIER ZUBIZARRETA, NEREA BEITIA, MARIAJOSE TELLERIA, JUNKAL TXURRUKA ETA ANE MAITE IRUSTAK** osatutako epaimahaiak Javier Ziaran, Arrate Arriola eta Itsaso Izagirreraren "Hartzeko pronto, emateko tonto" esaerari eman diote lehenengo saria, Eibarko AEK-k eta Udal Euskaltegiak, Udalarekin lankidetzan, antolatutako lehiaketan. 70 esaera aurkeztu dira lehiaketara eta, sari nagusiaz aparte, beste bost sari ere zozketatu dituzte aurkeztutakoen artean: Deitze Otaduy ("Bururik ez duenak hankak ibili behar"),



Peru Alberdi ("Berrogeita hamar urte artean bizi ez dana, gero ez da biziko"), Esther Alzelai ("Hainbat ate hainbat maratila, eta beti bat sobera"), Ana Marzana ("Kanpolarrosa etxekalte") eta Iñaki Amuategi ("Ura joan eta presia") izan dira saria jasotzeko aukeratutakoak.

## Industria argazkirik onena



Juan Antonio Palacios-en "Shura II" lan irabazlea.


**ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO INDUSTRIAGINTZAREN INGURUKO** argazki lehiaketako lehengo saria Juan Antonio Palacios García eibartarraren "Shura II" argazkiak irabazi du lehiaketaren bosgarren edizioan. Zuri-beltzeko argazkiak lainoekin bat egiten duen kea botatzen duen fabrika erakusten du. Bigarren saria Javier Arcenillas-ek (Alcobendas) eraman du, "Leidenfrost" lanarekin, hirugarrena Azpeitiko Juan Mari Ibarzabalek, "Txispastxis" argazkiarekin eta ikasle-ohi onenari saria, berriz, Mikel Orozko Venturaren "Equivocos" lanak eskuratu du. Lehiaketan 58 lehiakidek hartu dute parte, 162 argazkirekin. Epaimahaiko kideak José Valderrey, Jorge Agirresarobe eta José Luis Irigoien izan dira eta irabazleek hilaren 26an, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkarteko Urteko Batzarrean jasoko dituzte sariak.

## 1905-1924 bitarteko Udal Aktak digitalizatuta

**UDAL ARTXIBOAK, EGO IBARRA BATZORDEAREKIN ELKARLANEAN, UDAL AKTAK DIGITALIZATZEKO** Proiektuaren bigarren fasea amaitu du, 1905etik 1924. urte bitarteko aktak digitalizatuta. 2008an ekin zioten proiektuari, 1600-1904. urte bitarteko aktak jasotzen dituzten 20 liburuak digitalizatuta. Orduan, idatzien kaptura egiteko eskaner aereo irekia erabili behar izan zuten, jatorrizko liburuak oso handiak zirelako.



Bigarren fase honetan, berriz, 11.000 irudi baino gehiago jaso dira: besteak beste, 1904. urtetik Primo de Rivera jeneralaren diktadurara arte, Remigio Guimón Egañak alkatetza hartu zuen arte udal Gobernuak hartutako akordioak daude formatu digitalean. Urte horietan, Eibarko biztanleriak %54aren igoera izan zuen, 12.000 biztanle

inguru izatera ailegatu arte eta behargin gehienek esmitzak eta eskopetak egiten zituzten. Orduan egin zen, herriaren lehenengo zabalgunea ere, Ramón Cortazar arkitektoaren eskutik. Ego Ibarra batzordearen webgunean honen inguruko informazio zabalagoa irakur dezakezue.



## Arrate Kultur Elkartearen Bertso Astea egingo da Deporren

**ATZO ABIATU ZEN ARRATE KULTUR ELKARTEAK URTERO EGIN OHI DUEN BERTSO ASTEA**, tabernako saioarekin. Aurten, baina, Kultuko egoitza berritzeko beharrean dihardutela eta, ekitaldiak Klub Deportiboaren lokalak hartuko ditu. Atzo Igor Elortza eta Jon Maia izan ziren bertsoetan eta bihar, berriz, 14.30etan hasiko da bertso-bazkaria, Amaia Agirre, Sustrai Colina eta Mikel



Arrillagaren eskutik. Bazkaria menua honakoa izango da: entsalada eta kroketak, haragi gisatua, postrea eta kafea. Prezioa 25 eurokoa izango da (23koa bazkideen kasuan). Ekitaldia Korrika Kulturalaren barruan antolatu dute.

## laburrak

### IPUIN KONTALARIA KARRIKAN

Domekan, 18.00etatik aurrera, ipuin-kontalari saioa eskainiko dute Karrika tabernan Zurrumuru antzerki taldekoek. Saioa 4 urtetik gorako umeentzat pentsatutakoa da eta nahi duen guztiarentzat irekia.

### JUAN SAN MARTIN BEKA

Mendizaletasunari eskaintako Juan San Martin Beka aurkeztu zuten atzo Udalak eta bekaren laguntzaile den UEUK. Aipatutako ikerketa esparruaren inguruko ikerketa lanak euskeraz landu eta aurkeztu beharko dira. Beka 9.000 eurokoa da eta 2011ko abendu inguruan esleipena egiten denetik, beka eskuratzeko epea izango du lana burutzeko. Informazio gehiago behar izanez gero, Pegorara, (943 708400), Euskara sailera (euskera@eibar.net / 943 708435) edo UEUra (markeskoa@ueu.org / 943 821426) jo daiteke. Bete-beharreko baldintzak eta bestelakoak [www.eibarko-euskara.com](http://www.eibarko-euskara.com) gunean eskuratu daitezke.


### UDALEKUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuearako aurreinskrizioak egiteko epea zabalik dago txikienen kasuan: 7-13 urte bitartekoentzat hilaren 23ra arte egongo da zabalik eta 14-17 urte bitartekoentzat, berriz, apirilaren 6tik 15era bitartean. Informazio gehiagorako [www.gipuzkoa.net/](http://www.gipuzkoa.net/) oporraldi gunera edo Portalean dagoen Gazte Informazio Bulegora jo daiteke.

**BARIXAKUA**  
**18**  
**20.30**  
Unibertsitatean

**ZUZENDARIA:**  
Victor Mendoza  
**ANTZEZLEAK:**  
Sara Menaceur, Erdem  
Tsydypov, Maribel  
Palos, Carmen Oruña,  
Amanda Padilla  
**IRAUPENA:** 60 minutu

“El retablo de las maravillas”




Cervantesen zerbait badu ere, ez da antzerki klasikoa. Alderantziz, Bloc peto-petoa da, “eroa”, absurdoarekin janzen duena antzez proposamen hau. 70. hamarkadako film batean oinarritutako testua jartzen da eszenan, egungo telebista munduak bizi duen eromen beldurgarria aztertu eta astinduz.

*Arrojoscénico*

**ZAPATUA**  
**19**  
**17.00**  
Coliseoan

**ZUZENDARIA:**  
Javier G. Yagüe  
**ANTZEZLEAK:**  
Pedro Martín, Maria  
Moral, Pedro Roca  
**IRAUPENA:** 50 minutu

“Ojos y cerrojos”




Haur ikuskizuna, umearen perspektiba errespetatzen duena. Antzezlan barregarria da, misterioa, umorea eta giza kritika nahasten dituena. Hiri handi bateko edozein auzoko, edozein etxeko eskaileretan zehar egiten den ez-ohizko bidaiak: maldizio bat, jarraitzeko aztarnak, azpijoko ugari eta... aurkikuntza oso bat.

*Cuarta Pared*

**DOMEKA**  
**20**  
**20.30**  
Coliseoan

**ZUZENDARIA:**  
Cristina Martín  
**ANTZEZLEAK:**  
Ricardo Salinas, David  
Gallego, Victoria  
Izquierdo, Ana Belen  
Moreno  
**IRAUPENA:** 80 minutu

“Días mejores”




Antzezlanaren protagonistak langabe dauden edo behin-behineko lanak dituzten gazteak dira. Egun hobeen bila dabilen mundua da, harridura edo barre algarara eramaten gaituena kanpotik begiratuta. Guzti horren emaitza da fedea izateko behar ia neurotikoa eta gauzak hobeto joan daitezkeela pentsatu behar izatea.

*Teatrobrík*

**ASTELEHENA**  
**21**  
**20.30**  
Unibertsitatean

**ZUZENDARIA:**  
Vanessa Martínez  
**ANTZEZLEAK:**  
Vicente Colomar, Eva  
Higuera, Maya Reyes,  
Pablo Huetos, Javier  
Román, Gemma Solé  
**IRAUPENA:** 90 minutu

“El maestro de danzar”




Lope de Vegaren lehenengoetako testua da, egilearen jenialtasuna erakusten duena. Amodio, umore eta korapiloz betetako istorioa, zuzenean eskainitako musikarekin. Napolitik etorritako Aldemaro gaztea Florelarekin maitemindua dago eta, neskaren etxean sartu ahal izateko, bere burua eskainiko du dantza maisu moduan.

*Teatro Defondo*

**MARTITZENA**  
**22**  
**20.30**  
Unibertsitatean

**ZUZENDARIA:**  
Jesus Peña  
**ERABILTZAILAK:**  
Teresa Lázaro, Olga  
Mansilla, Diego López  
**TRAMOIA:**  
Chechu Hernández  
**IRAUPENA:** 65 minutu

“La maldición de Poe”



1994. urtean sortutako eta 2010.ean berriztatutako lana. Edgar Allan Poe idazlearen ipuin eta poemetan oinarritua dago eta bertako pertsonaia dirudite indar misteriotsu baten menpe mugitzen direla. Kezkak, makurkeriak eta misterioak ohizkoak ez diren proportzioak hartzen dituzte. Musika guztiz egokiarekin.

*Teatro Corsario*

**EGUENA**  
**24**  
**17.30/21.00**  
Unibertsitatean

**ZUZENDARIAK:**  
Elisabet Cabeza,  
Esteve Riambau  
**AKTOREAK:**  
Jose M<sup>a</sup> Pou, Calixto  
Bieito, Richard France,  
Jaume Ullé  
**IRAUPENA:** 90 minutu

“Màscars”



Josep M<sup>a</sup> Pou antzezle paregabeak eskaintzen duen antzerki ikasgai-erakustaldi bikaina. “Su seguro servidor” bere azken antzezlanaren prestaketa lanak gertu-gertutik jarraitzeko aukera: testuaren irakurketa, berau buruz ikastea, pertsonaia pausoz-pauso sortzea, nabardurak gehitu eta kentzea, jantziak aukeratzea etabar.

**ANTZERKIA ZINEMAN**

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, aitxitxa JOXE, eta muxu haundi bat zure bi printzesa Malen eta Intzaren partez.




Zorionak, MARCEL Arizmendi Arrizabalaga, atzo hiru urte egin zenduazelako. Muxu bat danon partez.




Zorionak, ARRATE, bederatzirte egin dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, NEREA, aurreko martitzenian urtiak egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Unairen partez.



Zorionak, KEPA, gaur urte bi egitten dozuzelako. Ondo pasa eta patxo mordua famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Andonegi Blanco, astelehenian urte bi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxitxa-amamen eta Nekaneren partez.



Zorionak, MARCEL, atzo zazpi urte egin zenduaz-eta. Ondo pasa eta muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, MIKEL eta AITOR, hille honetan urtiak egin dozuezelako. Muxu haundi bat amatxoren partez.



Zorionak, UNAX Amorrosta, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Patxote haundi bat, etxekuen partez. Ondo pasa, txokolatero.

## zinea Coliseoan



### "Sígueme el rollo"

Zuzendaria: Dennis Dugan  
Aktoreak: Adam Sandler, Jennifer Aniston, Nicole Kidman, Brooklyn Decker

18an: 22.30  
19an: 17.00/19.45/22.30  
20an: 19.30  
21ean: 20.30



### "Secuestrados"

Zuzendaria: Miguel Angel Vivas  
Aktoreak: Fernando Cayo, Manuela Vellés, Ana Wagener, Guillermo Barrientos

18an: 22.30  
19an: 17.00/19.45/22.30  
20an: 19.30  
21ean: 20.30



### "Torrente IV"

Zuzendaria: Santiago Segura  
Aktoreak: Santiago Segura, Mario Casas, Yon González, Belen Esteban

19an: 19.45/22.30  
21ean: 20.30

### HILDAKOAK

- Alfonso Moya Petite. 86 urte. 2011-III-10.
- Rosario Ceballos Ruiz. 93 urte. 2011-III-11.
- Sabina Arandia Achicallende. 91 urte. 2011-III-12.
- Emilia Alberdi Leturiondo. 94 urte. 2011-III-14.
- Lorenzo Moya López. 63 urte. 2011-III-14.
- Ana Mª Jauregi Lizarralde. 78 urte. 2011-III-15.

### JAOTAKOAK

- Iuliana Sara Moldouan. 2011-III-6.
- Lina Ait Bouazza. 2011-III-7.
- Jon Estelbar Peribáñez. 2011-III-7.
- Aitana Aparicio Zabala. 2011-III-10.
- Samia Bensellam. 2011-III-11.

## horoskopoa

**ARIES**

Ahalegindu zaitez eta samurragoa izan. Aldamenekoez eskertuko dute, azkenaldian zakarregia zaude-eta. Jarrera aldaketa beharrezkoa duzu.

**TAURUS**

Aspaldiko gorrotoek gaur egungo harremanetan traba egiten dizute; hori ez da sana. Kontu zaharrak dira: ahaztu egin beharko zenituzke.

**GEMINI**

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara uste baino lehen. Orain gogor-gogorra zaude, baina azkenean bigunduko zara. Ziur egon!

**CANCER**

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusiena. Badakit ez dela erraza une hauetan gauzak lasaiago hartzea, baina ahalegindu!

**LEO**

Lasaaaaiiii! Egunotan dituzun tristura eta nekea laster pasako zaizkizu. Hori bai, besteek baino denbora gehiago beharko duzu pasatzeko. Eutsi goiar!

**VIRGO**

Asteburu bikaina duzu aurretik. Hainbeste mimoz antolatutako "hori" borobil irtengo zaizu. Egon lasai horregatik, eta ekin buru-belarri.

**LIBRA**

Urtea amaitzen ari da eta balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez diren gauzak eta heldu gogor merezi izan duten beste horiei.

**SCORPIUS**

Hori da, hori, nerbioa! Ezin zara geldirik egon. Gainera, denari baietz esan behar! Badakizu zer egin: erlaxatu eta zure burua zaindu ezazu.

**SAGITTARIUS**

Non arraio bizi zara? Jaitsi behingoz lurrera, gauza mordoa galtzen ari zara-eta. Extralurtarra dirudizu; itxuraz ere hobetuko bazenu, hobe!

**CAPRICORNIUS**

Eskaini denbora gehiago aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu eta hori ez da txantxa. Badirudi lanerako bakarrik bizi zarela.

**AQUARIUS**

Agenda topera duzu; baina, benetan uste duzu apuntatuta dituzun gauza guztiak merezi dutela? Egin benetan nahi duzuna: ez begiratu besteei!

**PISCIS**

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu. Ez galdu aukera berri hori!

## Barixakua 18


**UNI ENCOUNTER**

**16.00.-** Jokoen eguna: Guitar Hero, Counter Strike, Blur eta Call of Duty: Black Op txapelketak. Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

**URTEKO BATZARRA**

**20.00.-** Klub Deportiboaren urteko batzarra.

**20.45.-** Ez-ohiko batzarra (estatutuak berritzeko). Klub Deportiboan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "El retablo de las maravillas" (URJC, Campus Fuenlabrada. Arroscénico). Hezkuntza Esparruan.

**KONTZERTUA**

**21.30.-** Luis Eduardo Aute-ren "Intemperie" diskoaren aurkezpen kontzertua. Sarrera: 20 euro aldeztatik, 25 euro leihatilan). Coliseoan.

## Zapatua 19

**LAPIKOTXIKI TAILERRA**

**10.00.-** Lapikotxiki tailerra, Esti Gonzalezekin. Umeen liburutegian.

**HERRI-KIROLAK**

**10.30.-** Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren saioa, marka ezartzeko ahaleginetan: esku bakarrarekin 3 metroko perimetroko enborrarekin. Berrizen (plazan).

**BERTSO-BAZKARIA**

**14.30.-** Bertso bazkaria Amaia Agirre, Sustrai Colina eta Mikel Arrillaga bertsolariekin, Arrate Kultur Elkarteak antolatuta. Klub Deportiboan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17.00.-** "Ojos y cerrojos" (Cuarta Pared). Coliseoan.

## Domeka 20

**TXIRRINDULARITZA**

**10.30.-** Abaskal Memoriala. Irteera Untzagan. Helmuga 12.00etan Urkizun.

**UDABERRIARI**


**12.00.-** Udaberriari ongoietorria emateko jai, Abontzako Iturrira elkarteak antolatuta. Egigurentarren parkean.

**URTEKO BATZARRA**

**18.00.-** Goi Argi elkartearen urteko batzarra eta Goruntz abesbatzaren emanaldia (2. deialdia 18.30etan). Goi Argi-ren egoitza (T. Etxebarria, 19).

**UMEENTZAKO ANTZERKIA**

**18.00.-** Ipuin-kontalari saioa, 4 urtetik gorako umentzat, Zurrumuru antzerki taldeko kide baten eskutik. Karrika tabernan.


**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Días mejores" (URJC, Campus Vicalvaro. TeatroBrik. Madril). Coliseoan.

## Astelehena 21

**STOP ARRAZISMOA**

**20.30.-** Arrazismoaren aurkako flashmob-a. Txaltxa-Zelaiko harmailetan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "El maestro de danzar" (Teatro Defondo, Madril). Hezkuntza Esparruan.

## Martitzena 22

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "La maldición de Poe" (Teatro Corsario, Valladolid). Hezkuntza Esparruan.

## Eguaztena 23

**ERREBAL BILERA**

**19.00.-** Bilera publikoa, Errebal Plataformak deituta. Portalean (areto nagusian).

**FOBALLA**

**20.30.-** Eibar-Real partidua, Arrate eskubaloit taldearen alde. Ipuruan.

## Eguena 24

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17.30 eta 21.00.-** Antzerkia zineman: "Máscaras" (Zuz: Elisabet Cabeza, Esteve Vicalvaro). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**ODOL-EMATEA**

**18.30.-** Odol-emateko saioa, Odol Emaileen egoitzan (Pagaegi, 3).





## erakusketak

- Martxoaren 26ra arte  
**MERCEDES CANTERO**ren olio-margoen erakusketa. Untzagako Jubilatuta Etxean.
- Martxoaren 31ra arte  
**J.A. PALACIOS**en "Kaian" argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.
- EDUARDO MAGUNACELAYA**ren argazki erakusketa. Portalea tabernan.
- "2010, URTE BAT IRUDIETAN" Ekinklik kolektiboaren argazki erakusketa. Karrika tabernan.
- Apirilaren 8ra arte  
**LLORENÇ PIÉ**ren argazki erakusketa. Deporren.
- Apirilaren 10era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**ren 85. urteurreneko erakusketa. Portalean (erakusketa aretoan).
- Apirilaren 30era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**ren 85. urteurreneko erakusketa. Portalean (Armagintzaren Museoa, 5. pisuan).

## lehiaketak

- **XVII. Ipurterre lehiaketa (LH eta DBH)**  
Informazioa eta lanak entregatzea: Martxoak 25era arte, ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu, 11).
- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.**  
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: Apirilaren 5era arte, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia. Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16-1), bulegoetan edo tabernan.

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## farmaziak

- 18. barixakua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 19. zapatua**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 20. domeka**  
EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
- 21. astelehena**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- 22. martitzena**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 23. eguaztena**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 24. eguena**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 25. barixakua**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

SUDOKUA

		6	1		4	2		
		4		5		3		
3								6
7			3	6	5			1
				9				
1			4	8	2			3
6								2
		8		4		9		
		5	2		8	1		

## DENBORAPASAK

2	3	9	1	7	4	8	5	6
8	7	5	6	3	2	1	4	9
4	6	1	5	9	8	2	3	7
7	5	4	3	1	9	6	2	8
1	9	3	2	6	6	4	7	5
6	8	2	7	4	5	9	1	3
9	1	7	8	2	3	5	8	4
3	4	6	9	5	1	7	8	2
5	2	8	4	6	7	3	9	1

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 126 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta trasteroa. Guztiz berritua. Argitsua. Tel. 626-203838.

– Errekatxun pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Tel. 636-930962 eta 649-091192.

– Estrenatzeko pisua salgai Amañan. 68'5 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldea eta komun bi. Iggogailuarekin. Argitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 687-122826 eta 943-901908.

– Pisua salgai Amañan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzari berrieekin. Tel. 620-917234.

– Duplexa salgai Eibarko erdialdean (Jata). 80 m<sup>2</sup>. Logela eta komun bina. Estrenatzeko eta kapritxora jantzita. Iggogailua ateraino. Bizitzera sartzeko moduan. Garaje bat edo bi, aukeran. 280.000 euro. Aukera ezinhobea. Tel. 608-171719.

### 1.2. Errentan

– Barrena kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 697-721417.

– 3 logelako pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 681-322442.

– Pisu txikia (logela bi) alokatuko nuke Eibarren. Tel. 693-509830.

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

– Logela alokagai Eibarren. Tel. 645-538674.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-238113.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren (2-3 logelakoa). Tel. 651-733446.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 m<sup>2</sup>. Trasteroarekin. Tel. 943-120308.

– Garajea alokagai Errebal kalean, Bolintxoren ondoan. Zabalik, trasteroarekin (13 m<sup>2</sup> + 6 m<sup>2</sup>). Tel. 687-800230.

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka edo interna. Tel. 626-068463.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-254063 eta 680-278485.

– Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 608-174645.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 635-313375.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egunez zein gauez. Klinikala-laguntzaile titulua-rekin. Tel. 619-511798.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan jarduteko asteburuetan. Tel. 645-366859 eta 943-257261.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-506777.

– Emakume euskalduna eskaintzen da 14.30etatik 16.30etara garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 618-875007.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 943-530795 eta 678-972690.

– Mutila eskaintzen da igeltsero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 690-906085.

– Neska eskaintzen da interna nagusiak zaintzeko. Tel. 646-977562.

## 4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da peoi edo kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 677-155611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-821678.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 676-035738.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan edozein lan egiteko. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-802342.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 678-972690 eta 943-530795.

– Neska arduratsua eskaintzen da asteburuetan eta astegun arratsaldetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-690415.

– Gizona eskaintzen da taberna lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 676-133516.

– Mutila eskaintzen da nagusiak eta baserriak zaintzeko. Tel. 630-031218.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 690-906085.

## 4.2. Eskaintzak

– Eibarko ileapaindegi batean 1. mailako ofiziala behar da. Tel. 943-254512.

– Neska behar da asteburuetan jabetxe bateko sukaldetan lan egiteko. Tel. 943-121262.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Filología Hispánican lizentziatuak Lengoaia maila guztiak ematen ditu. Tel. 653-015628.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Autorako umeen segurtasun aukia (9-24 kilo) eta egurrezko trona salgai. Tel. 617-256466.

– Ezkontzako soinekoa salgai. 40 tailakoa. Merke. Tel. 617-256466.


– Egurrezko markodun ispilua (1'60x0'60), Ikeako koadroak (lorak), latoizko heldulekuak eta flexo-argia (1'50) salgai. Merke-merke. Tel. 943-120308.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Eratzuna topatu da Julian Etxeberria kalean. Inskripzio-datarekin. Tel. 943-702297.

## 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN  
BIDE**




**AUTO  
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

## GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



## MEDEKOTASUNAREN LEGEAK GIPUZKOAN IZANGO DUEN ERAGINA. INFORMAZIOA

Tarteko medekotasuna duten pertsonen ere izango dute laguntza 2011n: 1. graduako 2. mailako medekotasuna dutenek, hain justu.

Pertsona horiek zein diren? Egunean behin behintzat laguntzaren bat behar dutenak, eguneroko bizimoduko jardueren dinamikoko batzuk egiteko; eta baita aldiak behin nolabaiteko laguntzaren bat behar dutenak ere, beren kasa moldatzeko.

Gratu horietako medekotasuna dutenentzat telelaguntza, etxeko laguntza, eguneko zentroak eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak daude, eta baita prestazio ekonomiko batzuk ere pertsona bere ingunetik asera gabe zaintzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Políticas Sociales

**Gi** gipuzkoan  
zure ondoan

- \_\_\_\_\_ Piskolabisa
- \_\_\_\_\_ Talde Argazkia
- \_\_\_\_\_ Umeentzako Tailerrak
- \_\_\_\_\_ Bazkaria
- \_\_\_\_\_ PUZGARRIAK
- \_\_\_\_\_ Zirku-Talerra
- \_\_\_\_\_ Bingo Herrikoia
- \_\_\_\_\_ DJa



CCMI

Bazkaria:  
 PAELLA  
 ERRAL DOIA!!  
 Edariak  
 Postrea  
 eta Kafea

Bazkide  
 Jaixa!!!

# Apirilak 9

**Armeria Eskolan**

Sarrerak:  
 nagusiak 10 €  
 umeak 5 €  
 ...eta kitto!n salgai



Ordutegia: 12etatik 20etara